

| KULTURA BATZORDEAREN BILKURAREN LABURPENA   | RESUMEN DE LA REUNIÓN DE LA COMISIÓN DE CULTURA   |
|---|---|
| 2012ko ekainaren 5ean   | 5 de junio de 2012  |
| <p><b>ORDUA:</b>19:00<br/> <b>BUKAERA:</b>20:00<br/> <b>LEKUA:</b>UDALETXEKO BILKURA GELA<br/> <b>BERTARATUAK:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Elena Sansiñena. Musika Banda Recreo.</li> <li>2. Elisa Almandoz. Baztandarren Biltzarra</li> <li>3. Lorea Atxa. Baztandarren Biltzarra.</li> <li>4. Ignacio Aguerrea.</li> <li>5. Mari Carmen Iribarren. UPN zinegotzia</li> <li>6. Ixabel Aleman Irungarai. Otsondo Elkarte</li> <li>7. Maribel San José. Aranabia Kultur Elkarte.</li> <li>8. Maitane Maritorea. Kultura zinegotzia.</li> <li>9. <i>Lohitzune Nuin</i> (Itzulpen lanetan aritu zen)</li> <li>10. Isabel Aleman. Otsondo elkarte.</li> <li>11. Ana Larruy. Kultur teknikaria.</li> </ol> <p><b>ERRAN-EGINAK</b></p> <p>2012ko apirilaren 17ko Kultura Batzordean egin/ erran zenaren laburpena irakurri zen, desadostasunik agertu ez zenez, aho batez onetsi zen.</p> <p><b>Arizkunenea Kultur Etxeko Aretoen erabilera banatzeko irizpideei</b> buruzko txostena irakurri zen eta desadostasunik agertu ez zenez, aho batez onetsi zen.</p> <p>Isabel Alemanek “<b>Haien ametsa gurea da</b>” ikuskizun artistiko musikari buruzko aurkezpena egin du. Aurten, 500 urte betetzen dira Nafarroa konkistatu zutenetik. Batailari buruzko dokumentazio anitz dago. Nafarroako Oroitarri Historikoen Batzordeak, eztabaida artean, monolitoa eraiki zuen. Bederatzi urte geroxeago dinamitatua izan zen. Duela 30 urte Amaiurko Gaztelu Elkarte sortu zen eta, Diputazioaren laguntzarekin eta memoria bizirik irautarazteko Amaiurko zutarria egin zuten. Aurten, elkarte horrek herritarrek parte hartzeko zerbeit egin nahi zuen eta, pastoral egiteko ideiarekin, Pier Pol Berzaitzekin harremanetan jarri ziren. Egitasmoa garatu zen</p> | <p><b>HORA:</b>19:00<br/> <b>FINALIZACIÓN:</b> 20:00<br/> <b>LUGAR :</b> SALA JUNTA GENERAL<br/> <b>ASISTEN:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Elena Sansiñena. Banda Recreo.</li> <li>2. Elisa Almandoz. Baztandarren Biltzarra</li> <li>3. Lorea Atxa. Baztandarren Biltzarra.</li> <li>4. Ignacio Aguerrea.</li> <li>5. Mari Carmen Iribarren. UPN zinegotzia</li> <li>6. Ixabel Aleman Irungarai. Otsondo Elkarte</li> <li>7. Maribel San José. Aranabia Kultur Elkarte.</li> <li>8. Maitane Maritorea. Kultura zinegotzia.</li> <li>9. <i>Lohitzune Nuin</i> (Itzulpen lanetan aritu zen)</li> <li>10. Isabel Aleman, Otsondo elkarte.</li> <li>11. Ana Larruy. Técnica de cultura</li> </ol> <p><b>DESARROLLO</b></p> <p><i>Se da lectura al resumen de la reunión celebrada el día 7 de abril de 2012 y al no manifestarse disconformidad, se aprueba por unanimidad</i></p> <p><i>Se da al informe sobre los criterios de adjudicación de uso de la Sala de Exposiciones de la Casa de Cultura Arizkunenea y la no manifestarse disconformidad, se aprueba por unanimidad.</i></p> <p><i>Se inicia la intervención de Isabel Aleman sobre el espectáculo artístico musical “Haien ametsa gurea da”. Este año se cumplen 500 años desde la conquista de Navarra. Sobre la Batalla existe mucha documentación. La Comisión de Monumentos históricos de Navarra construyó rodeado de polémica un monolito. Nueve años más tarde fue dinamitado. Hace treinta años nace la Asociación Amaiurko Gaztelu elkarte y con la ayuda de la Diputación con el fin de que permanezca en la memoria levantan el monolito de Amaiur. Este año, esta asociación quería conmemorarlo de alguna</i></p> |

eta Pier Pol Berzaitzek antzerki, dantza, musika eta bertsoz osaturiko ikuskizuna proposatu zuen. Parte-hartzaileak honakoak izanen dira: Maule eta Amaiurko herritarrak; Amets Arzallus bertsolaria; Amaiurko Gaztelu taldea; Audrey Carrique, Kattalin Indaburu, Isabelle Jaury, Magali Zubillaga, Mixel Arotze eta Petti bakarlariak; Amaiur dantza taldea, Xiberotarrak eta Aukeran.

Lehendabiziko zatia erromantzeaz eta bigarrena euskaraz izanen da, egun berean liburuxkak banatuko dira, pastorealean egiten den bezala.

Ikuskizuna uztailaren 20an egingen da iluntzeko 21:00etan, 1.200 ikusleendako. Egun horretan artisauek, bisita gidatuak, Erdi Aroko Musika animazioa, txokolatada eta hainbat ekitaldi antolatuko dituzte.

Sarrerak saltzen dira internetez "tickmaster.es" web orrian, azken hiru astetan bertako ostatu eta liburu-dendetan.

Egin behar den lana momentuz zehaztu gabe dago, aste honetan bilera bat egingen da Amaiurren lana batzordeka antolatzeko. Laguntza behar izanez gero Kultur koordinatzailearen bidez igorriko dute eta Anak informazioa zabalduko du.

**Baztandarren Biltzarra** elkarteko Elisa Almandozek adierazi du Baztandarren Biltzarrerako egin behar diren lanak banatuta daudela batzordeetan. Egun horietan nahiko lanpetuta ibiliko dira baina saiatuko dira. Bezperan gaupasa egingen dute eta uztailaren 22an artisauek, desfilea, bazkaria eta dantzaldia Trikidantz eta Laiotzen eskutik. Jantokirako zerbitzariak behar dira, hortaz, komunikabideen bidez kolaborazioa eskatzen hasiko dira.

Bertze aldetik, tonbola martxan dago.

Datorren urtean, 50. urtemuga ospatzeko, bertako kultur taldeen laguntzarekin, kultur jarduerak antolatuko dituzte urtean zehar Baztango herri desberdinetan.

**Euskal Artzainak Ameriketara diru-laguntza**. 2012ko apirilaren 27ko Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuen 450 euroko diru-laguntza ematea Euskal Artzainak Ameriketara elkarteari Laura Igantzi elkarteko lehendakariaren eskaerari erantzunez. Diru hori Ameriketara ibili diren baztandarren gaineko

*manera con la participación de los ciudadanos, y se pusieron en contacto con Peri Pol Bertzaitz con la idea de hacer una pastoral. Peir Pol Berzaitz propone un espectáculo compuesto por teatro, danza, música y versos. En este espectáculo participan: Maule eta Amaiurko; el bertsolari Ametsa Arzallus; Amaiurko Gaztelu taldea; los solistas Audrey Carrique, Kattalin Indaburu, Isabelle Jaury, Magali Zubillaga, Mixel Arotze eta Petti; los grupos de danzas Amaiur dantza taldea, Xiberotarrak y Aukeran.*

*La primera parte es en romance y la segunda en euskera, al igual que en las pastorales se distribuirá un libreto.*

*El espectáculo será el día 20 de julio a las 21:00, para 1.200 espectadores. Ese día se ha organizado artesanos, visitas guiadas, animación de Música Medieval, chocolatada y otros tantos actos.*

*Las entradas se pueden adquirir por internet y las tres semanas anteriores se pondrán a la venta en bares y librerías de la zona.*

*El trabajo que hay que realizar se organizará este semana en una reunión, y si se necesita colaboración se enviará a través del coordinador cultural y Ana lo hará saber a los integrantes de la Comisión.*

***Intervención de la asociación Baztandarren Biltzarra.** Elisa Almandoz explica que las tareas a realizar para la celebración del Baztandarren Biltzarra están organizadas en comisiones. En los días de la celebración de Amaiur andaran bastante atareados pero intentarán cooperar. Este año la víspera habrá verbena, y el día 22 de julio, artesanos. Desfile, comida y verbena con Triki Dantz y Laiotz. Se necesitan colaboradores para el comedor y se va a solicitar por medio de los medios de comunicación. Por otra parte, ya está en marcha la tómbola.*

*El próximo año se celebra el 50 de aniversario de Baztandarren y para ello van en todos los pueblos del Valle actividades con la colaboración de otras entidades culturales del Valle.*

***Subvención Asociación Euskal Artzainak Ameriketara.** La Comisión de Gobierno del día 27 de octubre de 2012 aprobó conceder la subvención de 450 € a la Asociación Euskal Artzainak Ameriketara en respuesta a Laura*

informazioa bilduko duten panelak egiteko erabiliko da. Panel horiek Arizkunenean paratzeaz gain Baztango eskoletara ere eramaten ahalko dira erakusketa gisa.

Agenda Kulturalaren kostuari dagokionez, kontuak e-mailez bidali ziren eta ikusten denez, edizio bakoitzeko 1.014,20 euro aurrezten dira orain artio egin izan diren agendekin konparatzen badugu. Maitanek azaldu du orain dela gutxi banatu dena hiru hilabetekoa izan dela, izan ere uda izanik ez baitu merezi abuztua solte uztea, hori dela eta ekaina-uztaila-abuztua agenda bakar batean sartu da.

Ikusita Kultura Batzordea batez ere informatiboa izan dela, eta Arizkuneneako eta erakusketa gelako arautegia egin dugula, kultura Batzordeak hilabetero egin beharrean bi edo hiru hilabetetarik behin egitea proposatu da

HURRENGO BILERA: irailaren 11n 19:00etan Baztango Udaletxean.

Baztanen, 2012ko ekainaren 7an

Maitane Maritorea  
Kultura zinegotzia

*Igantzi presidenta de la asociación, para realizar unos paneles que recogen la información de los baztaneses que estuvieron en América. Estos paneles además de colocarlos en Arizkunenea se podrán llevar como exposición itinerante a las Escuelas de Baztan.*

*Sobre el coste de la agenda cultural, se envió por correo electrónico las cuentas, y como se explica en cada edición, si comparamos con las que se han hecho hasta ahora, se ahorra 1.014,20 euros. Maitane explica que la agenda que se ha repartido hace poco es trimestral por no dejar el mes de agosto suelto, por lo que han entrado los meses de junio, julio y agosto en una única agenda.*

*Visto que la comisión ha sido sobre todo informativa, y que se han elaborado los reglamentos de la sala de Exposiciones y la Casa de Cultura Arizkunenea, de ahora en adelante se celebrará la comisión cada dos o tres meses.*

*Próxima reunión: día 11 de septiembre a la 19:00 en la Casa Consistorial de Baztan.*

*Baztan, a 7 de junio de 2012*